

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hezkuntzak “oso sakon” aztertuko ditu bekak esleitzeko ezarritako irizpideak

Horrela jakinarazi dio Iribas kontseilariak Nafarroako Arartekoari egin duten bileran

Jueves, 04 de agosto de 2011

Hezkuntza

Departamentuak "oso sakon" aztertuko ditu Irakaskuntza Ertaineko eta Unibertsitate-irakaskuntzako ikasleei bekak esleitzeko ezarritako irizpideak, eta, hala behar izanez gero, irizpide horiek berrikustearn ganean berrikuspen orokorra egingo du, Nafarroako Arartekoak iradoki moduan. Ildo horretan, dagokion elkarteekin harremanetan dago eta harreman horiek bultzatuko ditu.



Iribas eta Enériz kontseilariaren bulegoan.

Horrela jakinarazi dio Hezkuntzako kontseilaria den Jose Iribasek Nafarroako Arartekoari, Francisco Javier Enérizi, gaur, Departamentuaren egoitzan izan duten lehen harreman instituzionalean.

Kontseilariak azaldu dio "zuzenketa batzuk aplikatu ahal izan direla familia ugarietzako laguntzen inguruan edo ohorezko matrikulen inguruan". Hala ere, adierazi du "neurri guztiak berrikusteko —neurri horiek zehatz daitezke—, azterketa luzeagoa egin beharko dela, datorren deialdiak ezarritako denbora-eskasia medio edota gai batzuk konplexuak izategatik".

Bileran zehar, bi instituzioak ohartu dira eraginkorra izan daitekeela harremanetan egotea, biek duten xedea errazte aldera. Titularrek adierazi duten moduan, xede hori "herritarrei dagozkien gaiak ebaztera gerturatzea eta hobetzen ahalegintzea besterik ez da, zehazki hezkuntzaren eremu honetan".